



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

Athleticen bihotz zaletasuna 54 iruditan bildurik

- Batzar Nagusien erakusketa aretoan gaur hasita egongo da ikusgai "Athleee...clie. bihotz zaletasun baten irudiak – Gu gara nagusiak" izeneko argazki erakusketea. Zale zuri-gorriek eskainitako erakusketa horretan argazki-kazetaritzako punta-puntako profesional batzuk, hain zuzen be Zigor Alkorta, Oskar Martínez, Pablo Viñas, Borja Agudo, Fernando Gómez e Ignacio Pérezek, ataratako argazkiak biltzen dira. Unai Larreak koordinatzaile lanak egin ditu eta hori guztiori Batzar Nagusien bultzadeaz gauzatu da.

Bilbon, 2012ko uztailaren 27an.

Poza, tristurea, egonezina, harrotasuna, negarra, zoramena..., zenbat eta zenbat holango sentimentu azaleratu dituen Athletic zaleek azken denporaldian; zuri-gorrientzako liluragarria izan da eta daborduko taldearen historian sartuta dago. Sentipenen "cocktail" horri eragin eta argazki erakusketa batek urten dau, hamabigarren jokalaria, hau da, afizinoaren omenez atondurikoa. Unai Larreak koordinaturik, argazki-kazetaritzan adituak diran sei profesional bizkaitar —Zigor Alkorta, Oskar Martínez, Pablo Viñas, Borja Agudo, Fernando Gómez eta Ignacio Pérez— ibili dira joandako denporaldian Athleticen ibilbidearen jarraipena egiten. Ataratako argazkien artean ontxuenak aukeratu eta sentimentu zuri-gorritz beteriko erakusketea atondu da Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan (Bilboko Hurtado de Amezaga kaleko 6.ean). Izan bedi Bizkaiko legebatzarrak Athletic zaleei buruz dauen aintzakotzaren adierazpena.

Eguerdian izan dan inaugurazino ekitaldian, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak azpimarratu egin dau erakusketakoak "pertsonak bizitako irudiak dirala. Norberak bizi izan dituanak eta bakotzak besteakaz batera bizi izan dituanak." Madariaga Lehendakariak hurrengo gaineratu dau: "hilebete batzuetan krisialdiaren basamortuan oasia izan dogu: gure Athletic hain zuzen". Konbidatuez ganezka egoan erakusketa aretoan —han egozan, besteak beste, Josu Urrutia Athleticen presidentea, Jose Luis Bibao Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Iñaki Azkuna Bilboko Alkatea, Manuel Salinero, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak idazkari nagusia, Athleticen presidente izandako batzuk, futbolariak, argazkilari beteranoak, kirolariak eta politikoak— Madariaga andreak hurrengo gaineratu dau: "batzen gaituen bihotz zaletasun baten irudiak dira, Athleticenganako bihotzondoa. Poztasunak eta tristurak. Athleticetara izatearen harrotasuna."

Egin-eginean, harrotasun sentimentu horri esker uste dau Madariaga Lehendakariak Athleticen "mirakulua" egin ebala eta lortu egin ebala Batzar Nagusietako batzarkideak —horreetariko asko ekitaldian egozan— bat egitea. "Behingoz ez zan alderdirik ez kolore politikorik jokoan. Dan-danok han gengoan bildurik, gure Athletici bultzadea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

emoten”. Hitzaldiaren azkenean, Batzar Nagusietako Lehendakariak Iñigo Cabacasenganako oroitzapen emozionatua egin dau, esanez “Athleticenganako bihotz zaletasunak Iñigo be bihotzean izango dogula esan gura dau, zuri-gorritz jantzita betiko”.

Zaletuek taldeagazko dabezan sentimentuak guztien artean alkarregaz bizi beharrean sakontzen dau erakusketeak. Beste batzuk uste dabe garaikurren aretoa zenbat eta handiagoa izan arrakastea be halakoa dala. “Athleticen arrakastea, barriz, zaleen harrotasunaren eta zorionaren ereduak da”. “Gaur egun ez da munduan zalerik, inon be ez, San Mamesekoen modukorik, taldeaz, taldearen pentsaereaz, taldeak munduan erakusten dauen jokabideaz hain harro egongo danik”. Horixe uste dau Unai Larrea kazetari, Athleticceko bazkide eta erakusketearen koordinatzaile izan danak. Erakusketearen katalogoan dinoan legez “Anbizino handiko proiektua da erakusketa hau, baina, era berean, benetan sinplea be bai, lehengaitzat izan ditugun irudiei esker, Bizkaiko kazetari-argazkilaritzan aurre-aurrean dabilzan sei argazkilarik ataratakoak”. “Athleee...clic. bihotz zaletasun baten irudiak – Gu gara nagusiak” erakusketea —dino Unai— Athletici egindako omenaldia da, baina batez be Athletic zaleentzako omenaldia da, “garaipenean handitasuna eta galtzean goratasuna erakusten dabelako”.

Erakusketea irailaren 28ra arte ekusi leiteke, astelehenetik barikura, 9:00etatik 21:00etara; doanekoa da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

El sentimiento Athletic concentrado en 54 imágenes

- La Sala de Exposiciones de las Juntas Generales acoge desde hoy la exposición fotográfica “**Athleeee...clic! Imágenes de un sentimiento - Gu gara nagusiak**”. Es un homenaje al aficionado rojiblanco con instantáneas de destacados profesionales del fotoperiodismo como Zigor Alkorta, Oskar Martínez, Pablo Viñas, Borja Agudo, Fernando Gómez e Ignacio Pérez, bajo la coordinación de Unai Larrea y el impulso de las Juntas Generales.

Bilbao, a 27 de julio de 2012.

Alegría, tristeza, angustia, orgullo, llanto, éxtasis..., son sentimientos que los aficionados del Athletic han transmitido durante la pasada temporada, una campaña apasionante que ya forma parte de la historia del club rojiblanco. Este “cocktail” de sensaciones se ha juntado en una exposición fotográfica para homenajear al jugador número 12: la afición. Bajo la coordinación de Unai Larrea, seis profesionales del fotoperiodismo vizcaíno que han seguido al Athletic durante la pasada temporada -Zigor Alkorta, Oskar Martínez, Pablo Viñas, Borja Agudo, Fernando Gómez e Ignacio Pérez-, han hecho una selección de sus mejores instantáneas para llenar de puro sentimiento rojiblanco la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (calle Hurtado de Amezaga, 6). Es el reconocimiento del Parlamento de Bizkaia a la afición del Athletic.

En el acto de inauguración celebrado este mediodía, la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, ha destacado que esta exposición es una “muestra de sentimientos personales, vividos y compartidos”. El Athletic ha sido un “oasis, en este desierto que es la crisis”. En una sala de exposiciones abarrotada de invitados, entre los que se encontraban el presidente del Athletic, Josu Urrutia, el Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, el alcalde de Bilbao, Iñaki Azkuna, el Secretario General de la Presidencia del Gobierno Vasco, Manuel Salinero, expresidentes del Athletic, futbolistas, fotógrafos veteranos, deportistas y políticos, Madariaga ha manifestado que las imágenes seleccionadas reflejan un sentimiento que “nos une”, que transmiten “alegrías, tristezas, y orgullo de pertenencia”.

Precisamente, gracias a este sentimiento de orgullo, Madariaga cree que, entre los apoderados y apoderadas de las Juntas Generales –muchos presentes en el acto-, el Athletic “obró el milagro”. “No hubo diferencias ni colores políticos. Todas y todos fuimos Athletic”. Al final de su intervención, la Presidenta del Parlamento de Bizkaia ha tenido un recuerdo emotivo para el aficionado Iñigo Cabacas. “El sentimiento Athletic significa también que nunca le olvidaremos, que su recuerdo ondeará en rojo y blanco para siempre”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La muestra ahonda en la necesidad de compartir los sentimientos de los aficionados por el club. Mientras otros miden su éxito en función del tamaño de su sala de trofeos, el Athletic se “calcula a partir del orgullo y felicidad de su hinchada”. “Ninguna afición se siente hoy tan orgullosa de su club, de su idiosincrasia, de su forma de ir por el mundo, como la de San Mamés”. Es la opinión de Unai Larrea, periodista, socio del Athletic y coordinador de una muestra que él mismo define en el catálogo de la exposición como un proyecto “ambicioso y sencillo gracias en gran medida a la sensacional materia prima obtenida por seis integrantes de la vanguardia del fotoperiodismo vizcaíno”. “Athleeee...clic! Imágenes de un sentimiento-Gu gara nagusiak” es un tributo al Athletic pero sobre todo un homenaje a su “conmovedora” afición, “grande en la victoria y gigantesca en la derrota” destaca.

La exposición permanecerá abierta hasta el 28 de septiembre, en horario ininterrumpido de 9 a 21 horas, de lunes a viernes. El acceso es gratuito.

Zehaztasun gehiagotarako /Más información

Unai Larrea. Tfno.: 607 80 15 26 / unailarrea@hotmail.com

<https://twitter.com/Athleeeeclic>

<http://www.facebook.com/#!/athleeclic.erakusketaexposicion>

Vídeo Juntas versión corta

<http://www.youtube.com/watch?v=yhspbWfJPt4&feature=youtu.be>

Vídeo Juntas versión ampliada

<http://www.youtube.com/watch?v=iigfaUUDspo&feature=youtu.be>

Promo Internet

<http://www.youtube.com/watch?v=wBcMw22fOLo&feature=youtu.be>